



## LARRAUNGO HERRI-DANTZAK HERRI MUSIKA BILDUMAN

Juan Mari Beltranek editatutako disko-liburu honetan 60. hamarkadan hasi eta urtetan luzatu zen lanean bildutako materiala erabili da. Liburuan egin zen ikerketari buruzko azalpenak izateaz gain, informatzaileei hartutako hitzen transkripzioak, haiei buruzko datuak eta diskoan ageri diren piezen partiturak daude.

Herri Musika Bilduma aberastera datorren lan berri honek aurrekari ugari ditu. Ama larraundarra izanik, txikitatik izan du Juan Mari Beltranek harreman eta lotura zuzena Larraun bailararekin. Hautzarotan denbora luzea pasatzen zuten bertan eta horren ondorioz ondo ezagutu zituen 1950. hamarkadako inguru horretako eguneroko, ospakizun, festa nahiz jaietako giro eta ohiturak. 1962an Etxarri Aranatzetik Donostiara bizitzera aldatu zirenean Larrauneranzko joera mantendu zuten.

Juan Mari Beltranek Donostiako Argia Euskal Dantza Taldeko partaide zela 1967an hasi zuen Larraungo folkloerari buruzko informazio bilketa. Garai hartakoak dira Iribasko Juan Bautista Lasarteren ahotik jaso zituen ingurutxoaren musika eta bestelako kantak. 1968an Argia Taldeko dantzariak, eta haiekin batera Iribasko gazte batzuek, Ingurutxoak ikasi zuten.

Larraungo folkloerari buruzko bilketa lanaren hasieran ez zuen grabazio egiten, zuzenean paperean gordetzen zuten jasotakoa, baina laster hasi zen hots grabazioak egiten eta gordetzen.

1970ekoak dira grabatutako Ingurutxoaren lehen doinuak. Larraunen egin zituen lehen grabazioak eta gaur egun Soinuenearen fonotekan kontsulta daitezke. Ondoren etorri ziren silla-dantza, almute dantza, ezpaine-tako soinua eta abar luze bat.

Hasieran bere familiaren Iribas eta Allin ikertu zuen, eta gero Larraungo beste herrietan, hala nola Baraibarren, Errazkinen, Uitzin, Gorritin...

1987an Iruñean antolatutako Udako Euskal Unibertsitateko Musika Saileko Taldearekin Iribasera egin zuten irtenaldian Silla-dantzaren inguruko informazio zabala bildu


zuten.

Informatzaile asko izan dira galde-tuak urte hauetan. Eztarri eta belarri oneko abeslariak, oin arindun dantzariak eta orokorrean memori oneko herri dantza eta musika zaleak. Bisitatutako herri eta etxe guzietan beti jaso dute harrera eta tratu aparta lan honen egileek. Larraundar hauen bitartez osatu dute hemen aurki daitekeena.

Bilketa lan horietatik elkarte ezberdinen argitalpenetan agertu diren artikulak, komunikazio eta hitzaldiak sortu dira. Hor daude, besteak beste, UEUren Printzak Saileko 5 zenbakian argitaratu zen *Doinu zaharren inguruan*. *Iribas*, Ortzadar elkartearen Sukil, Cuadernos de Cultura Tradicional bildumako lehenengo zenbakian argitaratu zen *Silla-dantza eta*

## LARRAUNGO HERRI-DANTZAK

Larraungo herrietan XX. mende hasieratik  
erdialdera arte egiten ziren dantzak



Edizioa:  
Juan Mari Beltran Argiñena

*Almute-dantza*. Iribasko bi dantza jokuak, edo Dantzariak aldizkarian argitaratu zen *Larraungo Ingurutxoak edo Ingurutxoak Larraunen*.

Orain aurkezten duguna Larraungo herri kultura eta dantzen inguruan egin den ibilbide horretan beste urrats berri bat da. Aurrera egin ahall izateko oso garrantzitsua izan da Mitxau-senea Lekunberriko Kultur Etxeak eskaini eta utzi digun argazki bilduma, XX. mende hasieran Larraungo herrietan egindako argazkiz osatutakoa.

Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mitxausenea Lekunberriko Kultur Etxeak eta Barakaldoko Laguntasuna Kultur Elkarteak proiektu honen argitaratzean lagundu izana eskertu behar dugu.

# KONTZERTUAK SOINUENEAN

## NEGUKO KONTZERTUA

2017ko urtarrilaren 14an - 18:30 - Oiartzungo Udaletxean - 5 euro


### LARRAUNGO HERRI-DANTZAK



Juan Mari Beltran:  
*txistua-danbolina  
eta pandereta.*



Ander Barrenetxea:  
*atabala.*



Errege Belda:  
*akordeoia.*



Aitor Beltran:  
*aho-soinua.*

Larraungo dantzariak:  
*dantza eta kaskainetak/kriskitinak.*

Larraungo herri-dantzak disko-liburuko edukia aurkeztuko duten musikariak Juan Mari Beltran, Ander Barrenetxea, Errege Belda eta Aitor Beltran izango dira. Lauen artean Larraungo bailaran ezagutu ziren danbolinteroan, akordeoi-joleen, panderero edo ezpainetako soinua jotzen zutenen lana gogoratuko dute haien ondoan dantzariak izango direlarik.

1900 mende hasieran herri horietan gehien entzuten zen musika txistu eta danbolinarekin jotakoa zela gogora-

raziko dute. Danbolintero hauetako batzuek edota haien oinordekoek iritsi berria zen “akordeona” jotzen ikasi zuten, zenbait herritan danbolinteroaren figura ordezkatuz.

Pandereta jotzaileak ere ugari ziren. Hauek ziren beren kantu eta pandereta hotsarekin jaieroko dantzaldi xumeetan eta bestelako ospakizunetan protagonista musikalak.

Joko duten Larraungo herri-dantzen bilduman XX. mende hasieran bailarako herri bizitzan antolatzen eta egiten ziren ospakizunetan, festetan eta bestelako ekintzetan agertzen ziren

hainbat motako dantzak daude. Tartean daude edozein festa, festatxo, ospakizun eta bileretan dantzatzen ziren jota eta bizkaiko izenekin eza-gututako dantza soltekoak, herrian etxez etxe egiten ziren kale-bueltak egiterakoan eta plaza edo antzekoetan eskutik helduta dantzatzen ziren korruko saltotakoak.

“Agarrau” edo heldutako motako balsak, pasodobleak eta garai hartan arrakastatsuak ziren azken momentuko modako dantzak ere badaude. Egindako elkarrizketetan esaten zutenenez “Infernuko hauspoa” erabiltzen omen zen modako dantza horiek jotzeko.

Etxeetan edo ostatueta egiten ziren aulki-dantzak eta almute dantzak bezalako dantza-jokoak eta ingurutxokoak bezalako herri dantza sozialak.

Ospakizun, ekitaldi, dantza mota, eguna edo momentuaren arabera dantza hauek etxeetako larrainetan, frontoietan, herri barneko bideetan, etxeetako sarreretan, ganbaretan eta bestelakoetan egiten ziren.

**ETA GOIZEAN**

### EMANALDI DIDAKTIKOA

Larraungo herri-dantzak

*Lekua:* SOINUENEA  
Tornola kalea, 6  
20180 Oiartzun

*Eguna:* 2017-01-14

*Ordua:* 11:30

**Juan Mari Beltranek** jotako musikarekin eta Larraungo dantzariak lagunduta, haurrek eta haien senideek Larraungo bailarara salto egingo dute hango aulki-dantzak eta ingurutxoa ikasteko aukera honetan.

# BALBARDA

## Iberiar Penintsulako herri musika



Xurxo Ordóñez: *gaita de fole, gaita charra, flautak eta danborra.*

José Luis Escribano: *kaxoia, darbuka, panderoak, riq, Peñapardako panderoa, platerak eta elektronika.*

Milena Fuentes: *5 eta 4 hariko biolinak eta rabela.*

Darío Palomo: *klarinete baxoa eta sopranoa.*

Javier Monteagudo: *gitarrak eta mandola.*

Talde honek jotzen duen musika Iberiar Penintsulako usadioan oinarritua dago. Hura ikuspegi moderno eta pertsonal batetik interpretatzen du, jatorri herrikoi garbienetik hartutako mamia egungo ñabardurekin birsortuz.

Taldearen helburuetako bat bere herriko musika bizirik dagoen tradizioan mantentzea da, horretarako egungo ingurunera egokituaz, iraganeko kultur aberastasunaren zati bat ahaztuta gera ez dadin.

Balbardak bere ibilbidean zehar berezko antolaketa instrumentalarieutsi dio. Bertan izan ditu gaita charra, gaita de fole, gitarra, biolina, perkusioa eta zarrabetea. Hala ere, saxofoia eta kontrabaxuak bezalakoek eskaintzen dituzten bestelako tinbre-

kin ere osatu izan du bere hotsa eta aukerak zabaltzen joan izan da tinbre eta hots berriak aztertuz, beraien tradizioko eta kanpoko musika kulturako soinu-tresna berriak ikertuz.

### Ahozko tradiziozko musikak XXI. mendean

Taldeak iberiar penintsulako herri musiketan oinarritutako kultur bidea egiten du denborak aurrera egin ahala garai eta kultura ezberdinak lotuz itxura hartu duten abesti eta doinuak erabiliak.

Balbarda sortu zenetik hona plaza ugarritan ibilitako taldea da eta estatuan folk musika jorratzen duten jaialdi nagusienetan harrera sutsua izan du. Jaialdi edo plaza horien artetik

batzuk aipatzekotan Ortigueira, Folk Plasencia, Folk Vigo, Folk Aranjuez, Camuñasko Corpuseko Festak eta Santiago de Compostelako Kongreso eta Erakusketen Jauregia daude.

Balbarda estatuan hedapen handiena duten komunikabideetan ere azaldu izan da. Hala, RNE 3, RNE 5, SER eta COPE bezalakoetan aurkeztu izan ditu bere lanak. Estatuan bertan eta herriarteko mailan banatzen diren egunkari eta aldizkarietan ere bere lekua izan du. Esteka honetan RNE 3-an eman zuten kontzertua ikusteko aukera dago.

Taldeak argitaratutako azken lana "Danza de Máscaras" izenekoa da. Taldeari sonoritate berritua eman dioten tinbrez eta ñabarduraz betetako lana da.

### AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria kontzertutik gertu, Aialde kaleko 6.ean izango da, Ibargain elkartearen. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Afaltzeko lekua gordetzeko Soinuenera deitu eta izena ematea komeni da.

**Afaria + Kontzertua: 20 euro**

### kontzertu honen laguntzaileak:

KULTUR, JOLAS ETA KIROL ELKARTEA

**ibargain**  
Aialde OIARTZUN



## SOINUENEAKO LAN TALDEA

Laguntza, babesa eta sostengua emateaz gain urtean zehar egiten dituen ekintzetan Soinuenea-HMT egiturarekin lankidetzan aritzeko asmoarekin, 2014 bukaeran "Lan Taldea" deituta sortu zen Eusko Ikaskuntzan desagertutako Folklore Saila osatzen zuten kideekin.

Joan den azaroaren 11an izan zen Kultur Ondare Ukiezinaren babesean aritzen den talde honen, aldi berean Zatak Herri Ondarea (egoitza berria Bilbon duena) osatzen duen gizataldea, azkenengo bilera.

Bilera horretan Soinuenea museoak 4000 bisitariko kopurua gainditu zuela iragarri zen eta 2017ko egutegia aurkeztu zen. Azken urteetan bezala ekintza eta lan ugariz bete da dator: kontzertuak, musika eta dantza tailerrak, musika hezkuntza, materialen katalogazioa, argitalpenak eta, nola ez, urteroko Jardunaldiak. Aurten Jardunaldiak Kultur Ondarearen hedapenari, eskubideari eta, nagusiki, kudeaketari buruz izango dira. Urte honetatik aurrera Jardunaldiak urteko lehen hilabeteetan izango dira, aurten martxo bukaera eta apirileko lehen asteburuan luzatuko dira. Egitarauari buruzko informazioa Soinueneako webaren bidez zabalduko da.



Soinueneako Lan Taldea iaz Eibarren bildu zenean. SNN


## URTEKO BISITEN LABURPENA

Urtean zehar Soinueneak 4045 bisitari hartu ditu. Bisitari horien %85 gidatutako taldeetan etorri da eta gainontzekoek bisita beraien aldetik egin dute.

Talde guztiak ez ziren berdinak, baina bereizten hasita bitan banatu ditugu taldeak: ikastetxeetatik zetozenak eta bestelakoak. Gutxi gora behera taldeetan etorri diren bisitarien erdiak ikastetxeetatik etorri dira. Ikastetxe horiek Euskal Herriko geografian barreiatuta daude mugaren alde batean zein bestean. Deigarria egin zaigu Arabako ikastetxeetatik bat bera ere ez etorri izana.

Beste taldeetan ia ikastetxeetatik adina bisitari etortzearen arazoia udalekueetatik etorri den ikasle kopuru altua izan daiteke, izan ere, aurten Oarsoaldeko udalekuen bisita jendetsua izan dugu. Udan etorri diren haur horiekin soinu-tresnak bilatzen jolastu gara edota garai batean gurasoekin edo aitona-amonekin egiten zizuten soinu-tresnak egiten aritu gara. Bisita gidatuan etorri diren taldeei buruz aipatu beharreko beste kontua zera da, ia denak (%99) Euskal Herritik etorri direla.

Bisitari kopurua urte osoan ez da berdin banatuta etorri. Gurean nabarmena da udaberrian izaten den bisitari gorakada, izan ere martxoan hasi eta ekainera arteko epea da bisitari gehien izaten dituen. Udaran udalekuek dirauten bitartean bisitari ugari etortzen da, baina turistak bakarrik geratzen diren garaian behera egiten du jende kopuruak. Udazkena sartua izaten da berriro bisitari kopuruak gora egiterako. Edozein kasutan, ez da udaberriko mailara iristen. Aurten, bisitarien erdiak baino gehiago udaberrian etorri direla ikusi dugu.



Udalekueetako haurra firringila egiten. SNN

### **BISITARI KOPURUA**

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 989  
Antolatutako taldeak: 28

Bisitari kopurua urtarrilerara arte: 54005

### **WEB ORRIRA BISITAK**

Azken hiru hilabeteetan: 16278

## **Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa**

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

[www.soinuenea.eus](http://www.soinuenea.eus)



OIARTZUNGO  
UDALA